

HONDAKINAK GAIKA BILTZEKO UDAL SISTEMA BERRIA:

GOMENDIOAK - Etxebizitzak

TXARTEL ELEKTRONIKOAK:

- ❖ Txartel elektronikoa bakarrik herriko edukiontzi marroi (biohondakina) eta gris (errefusa, ez birziklagarria) guztiak irekitzen ditu, asteko zazpi egunetako 24 orduz. **Etxebizitza bakoitzeko txartel bakar bat** ematen da.
- ❖ Txartel bakarra zure ohiko etxebizitzari lotuta dago. Bere erabilerak azken honetan zenbatuko dira. Etxebizitza aldatzerakoan (erosketa, alokairua), kontutan hartu ezazu txartel elektronikoa etxebizitzari dagokiola.
- ❖ Edukiontzi marroiak eta grisak ireki ahal izateko **txartel elektronikoa BETI erabili behar da**, nahiz eta une horretan edukiontziaren tapa irekita egon. Bestela ezin baita zenbatu benetan zenbat eta nola erabiltzen ari den, bere erabilera demostratzeko. Gero, **itxi tapa BETI**, eta ez bada ongi ixten edo irekitzen, mesedez esan Udalean.
- ❖ Gure asmoa da datuak biltzea hondakinak hobeto kudeatzeko eta tasa bidezkoago batzuk (hobari fiskalak barne) ezartzeko, zuk bezala hondakinak biltzeko ohitura arduratsuagoak dituzten herritarrei. Hori dela eta, etxebizitza identifikatzen duen txartel elektronikoa batekin irekitzen dira edukiontzi marroiak eta grisak.
- ❖ Txartela galdu edo hondatzen bada, berri bat eska dezakezu Udalean.

POLTSA KONPOSTAGARRIAK:

- ❖ Udalak zure eskura ere jarri ditu kubo bat, informazio gida bat eta 10 litrotako poltsa konpostagarriak, materia organikoa errez bereiz dezazun. Kuboan jarri ezazu poltsa bakar bat eta bete ondoren, sartu ezazu edukiontzi marroian. Beren ezaugarriengatik, poltsak soilik funtzio honekin erabiltzeko dira, eta ez bestelakoetan.
- ❖ Erabili **soilik poltsa konpostagarriak**, eta bukatutakoan eskatu itzazu DOHAINIK Udalean, txartel elektronikoa ekarriz. **Ezin dira erabili plastikozko poltsa arruntak bosgarren edukiontzian.**
- ❖ Poltsa konpostagarriak banatzeko **bost makina ere jarri ditu Udalak**, dohainik eskuratu daitezkeelarik: Iztieta, Beraun, Galtzarabordako kiroldegia, Kaputxinoak, eta Agustinak. Poltsak bukatutakoan hurbildu zaitez **zure txartel elektronikoarekin**, eta hartu ezazu zure 40 poltsetako paketea, beste 10 asteetan zehar birziklatu ahal izateko.

HOBARI FISKALAK:

- ❖ **Etxebizitzen tarifyan %27ko hobaria** izango dute **materia organikoa bosgarren edukiontziaren bidez gaika biltzeko udal Programan parte-hartze aktiboa egiten duten familiek**. Hau da, hobari fiskala izateko eskubidea ematen duena parte hartze aktiboa bera da, eta ez sisteman izen-emate hutsa.

Horretarako, aipatutako Programan partehartze aktibotzat hartuko da, urtero uztailaren 1 eta abenduaren 31 arteko epealdian, bosgarren edukiontziaren erabilera elektronikoa gutxienez sei irekiera egin baldin badira, egun ezberdinetan.

- ❖ Udalaren helburua da Erreterian epe motzean %60ko gaikako bilketara iristea (2014an, %31'8; 2015ean, %40'8; 2016an, %42'3; 2017an, 45'7%). Eskerrik asko jatorrian hondakinen gaikako bilketan parte hartzeagatik eta, ondorioz, Ingurumena, Klima eta Osasun Publikoa babesteagatik.